



Euskal literatura goza !



Hiru dira nobelako protagonistak: Martin, Gari eta Ines. Hiruki perfektu horren erpinean dago Ines, bataren eta besteren sexu (eta maitasun) oldarrak zorabiaraziz. Whatsapp, twitter eta mugikorrek markatzen dute narrazioaren tempusa, bakoitzaren lekua hirukiaren baitan eta bizitzari begira norbere espektatibak.

Baina inork ez du bere eskuetan harreman gatazkatsu horrentzako irtenbiderik, ezpada bakea sinatuz ordu arte gerra baino izan ez den bizitzarekin. Izan ere, onenean ere, iragan petralak markatutako arrastoan zeuden hirurak saretuta. Eta iragana nota atsekabez idatzitako pentagrama da, musika frenetiko, gogorra, pausarik gabea. Istripuan hildako gurasoek utzitako bakardade sakonetik, edo guraso bananduek zabalduetako zulo hondogabetik datorren melodia lazgarria eta minbera da.

Psikoanalisian bezala, roman familiarra ari da baldintzatzen gure oraina, patroi zaharrek jarraitzen dute agintzen gure bizitzetan, eta soilik haiekin bakeak eginez konkistatuko dugu geure bizitzaren kontrola, amaren eta putaren arteko pultsioa leunduz, samurtasuna eta haragia adiskidetz. Azken batean, geure buruarekin batera, bizitza ere maitatzen ikasiz.



Otsailaren 4ean
19:00etatik-20:00etara
IKASBIDE KULTUR
ELKARTEAN
Edu Zabalak zuzendua